

Testua eta ilustrazioak: **PALOMA VALDIVIA**  
Itzulpena: **MANU LOPEZ GASENI**

Cartoné koadernaketa. 22x22 cm.

36 orrialde. Koloretako ilustrazioak

Honako hizkuntza hauetan eskuragarri:

- Euskara: "Goikoak eta behekoak"  
Kalandraka-Pamiela. ISBN 978-84-7681-659-2
- Gaztelania: "Los de arriba y los de abajo"  
Libros para Soñar. ISBN 978-84-96388-28-4
- Gailegoa: "Os de arriba e os de abaixo"  
Demademora. ISBN 978-84-8464-691-4
- Katalana: "Els de dalt i els de baix"  
Kalandraka-Hipòtesi. ISBN 978-84-936667-7-4
- Portugesera: "Os de cima e os de baixo"  
Livros para Sonhar. ISBN 978-989-8205-17-9
- Italiera: "Quelli de sopra e quelli di sotto"  
Libri per Sognare. ISBN 978-88-95933-22-1

Salneurria: 13 €

**Munduan bi biztanle mota daude.**

**Goikoak eta behekoak.**

**Goikoak behekoak bezala bizi dira.**

**Eta behekoak goikoak bezala,  
baina alderantziz...**



## GOIKOAK ETA BEHEKOAK

Album honetako alderdirik azpimarragarriena haren proposamen estetiko eta narratiboaren originaltasun eta soiltasuna da. Mundua alderantziz delako ikuskeratik abiatzen da, errealitateak dimentsio paralelo batean dukeen halako islatik. Eta bizimodu erabat desberdinak eta antagonikoak daramatzatelako ideiatik abiatu beharrean, bizikide eta osagarriak diren mundu partekatuak direlako planteamendua da aurkezten zaiguna.

Desberdintasun bakarra da gertakizunak buruz gora eta beheko planoetan jazotzea, tolestuz gero bateratsuak izan daitezkeenak. Buruz gora edo buruz behera irakurtzeko albuma da, irakurlearen nahierara; bi aldetatik irakurtzeko ezin aproposagoa. Ilustrazioek, berriz, biztanleria bitxia erakusten dute: oinarrizko moldeetan irudikatutako pertsonaiak, eszena simetrikoak, kolore leun eta epelak.

**PALOMA VALDIVIA** (Chile, 1978)

Diseinua ikasi zuen Txileko Unibertsitate Pontifizioan eta gero Ilustrazioko graduondo ikastaro bat egin zuen Bartzelonako EINA Eskolan. Ilustratzaile gisa lan

- **Gaiak:** buruz gora eta buruz behera bizi diren bi mundu paraleloetako biztanleen arteko harremana
- **Gomendatutako adina:** 4 urtetik aurrera
- **Alderdi azpimarragarriak:** albumaren diagramazio eta formatua, bi aldetatik irakur daitezkeen testuekin
- **Zehar-lerroak:** gizarte-harremanak, espazioa, noranzkotasuna, geografia, kultura-aniztasuna, kontinenteen arteko desberdintasunak (klima, ohiturak..)

egiten du zenbait argitaletxe, museo eta hedabide grafikorentzat, hala Txilen, nola Txinan eta Espainian. Miguel Gallardo artistaren ilustrazio-laguntzailea ere bada. Haurrentzako 15 bat album argitaratu ditu. Beste lan-ildo batean, haurrentzako telebista-erako gidogile eta ilustratzailea da. Jaso dituen sarien artean Eslovakiako Ilustrazio Bienaleko BIB PLAQUE Nazioarteko Saria aipatu behar da. Bere jaioterriko bi unibertsitatetan irakasten du ilustraziogintza. Gaur egun Bartzelonan bizi da.

